

Lagun urkoari barkatzearen gañeko izketa.



Beragatik zure anayak zure kontra gaizki egin badu, gaiztorako bidea zuri emanaz, zoazkio, eta buruz-buru lotsa-eman edo erreprenditu ezazu; aditzen badizu, zere anaya irabazi dezu: baña entzuten ez badizu, lagun bat edo bi artu itzatzu, bi edo iruk agiria eman dezaten. Baldin oyei aditzen ez badie, Elizari esayozu: eta baldin Elizari ere aditu nai ezbadio, Jainko egiazkoak ezagutzen ez duen fede gabe-kotzat artu ezazu. Egiaz esaten dizutet, zuek lurrean askatzen dezute-na, Zeruan askatua izango dala.

Orduan Pedro-k, Jesus-i ondora joanda, esan zion: ¿Jauna, nere anayak zenbat aldiz niri gaizki egingo dit, eta nik barkatuko diot? ¿zazpi aldiz? Jesus-ek eranzun zion; ez zazpi aldiz, baita irurogei ta amar aldiz zazpitan ere: esan onekin aditzera emanaz, beti-beti barkatu bear zayola. Gero Jesus-ek esan zion: Zeruko Erreinuak dirudi bere serbitzariai kontuak artu nai ziezten Erregea. Au asi zan kontuak eskatzen, eta aurkeztu zioten amar milla talentu, au da, irureun ta amasei milloi eta zortzieun milla erreal bezalatsu, zor ziozkan morroi bat. Zor andi au zerekin kendu edo pagatu morroyak etzuelako, Erregeak agindu zuen, serbitzari au, bere emazte, ume ta gauza guziak saltzeko, eta ari zor zitayona emateko. Orduan morroyak, oñetan jarrita, eskatzen zion, arren, leku emateko eta dana pagatuko ziola. Erregea errukitu zan, eta ez leku eman, ezen, zor guzia barkatu ere zion, eta joaten utzi zion. Andik irten da, zijoala, topatu zuen, oni beroni eun denario, au da, berreun erreal bezalatsu, zor ziozkan morroi-lagun bat, eta lepotik itsatsita, itotzeko zorian zeukala, esaten zion: nere artzekoa edo zor didakana indak. Lagun zorduna auspez jarri zitayon, eta eskatzen zion, leku piskabat emateko eta guzia pagatuko ziola; baña eperik eman nai izan etzion, eta ichian

sartu zuen, zorra kitatu arteraño. Beste lagunak eginbide onekin chit atsekabetu ziran, eta nagusiari joan zitzayozkan, zer gertatzen zan, salatzerá. Nagusiak serbitzari gogor oni otseginda, esan zion; ¿serbitzari gaiztoa, nere artzeko guzia nik barkatu nikan, erregutu idakalako; eta i ere ire lagunaz errukitu bear ez intzakan, ni izaz errukitu nindukan bezala? Erregeak, osotoro aserretuta, borreroen eskuetan ipiñi zuen, zor guzia kitatu arteraño. Nere Aita Zerukoak zuekin ere au bera egingo du, baldin nork bere-anayari utsegiñak biotz-biotzetik barkatzen ezbadiozka.

Itzketa onetan luzaro Kafarnaum-en jardunda, Jesus bere Apostolu eta ikasleekin Jerusalem-eronz abiatu zan.

FRANZISKO IGNAZIO LARDIZABAL-KOAK.

TRADICIONES NABARRAS.

SALKINDARIA.

El traidor.

(CONCLUSION.)

Esta escena despertó en nosotros una irresistible curiosidad. ¿Qué significaban la palabra *traidor*, y aquellas oraciones y aquella expresión de tristeza que reflejaban todos los semblantes? Viendo que el silencio continuaba nos decidimos á interrogar al abuelo acerca de ello.

—Es una historia bien triste,—contestó.

—¿Os molestará el referírmola?

—No por cierto,—dijo: y despues de un momento de pausa, y mientras cargaba su pequeña pipa con la rizada *belarra* que guardaba en una bolsa de piel de foca, añadió como hablándose á sí mismo:— al contrario, es bueno que la gente jóven la tenga presente.—